# IN MEMORIAM: JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos
Año 40. Tomo XXXVII. N.º 1 (1992), p, 11 -18
ISSN 0212-7016
Donostia: Eusko Ikaskuntza

## JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN AYERBE

Eusko Ikaskuntzako Lehendakari.

Euskaltzaindiako akademiko osoa.

Aranzadi Zientzi Elkarteko Ohorezko Lehandakari.

Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko adiskide.

Labayru Institutuko Ohorezko kide.

Honoris Causa doktorea Euskal Herriko Fakultate eta Unibertsitateetan, Gasteizeko Teologian, Deuston eta Madrilgo Konplutensean.

Euskalerriko Etniker Taldeen Lehendakaria.

Jose Miguel de Barandiaran Ayerbe jauna 1889.go Abenduaren 31an jaio zen Ataunen (Gipuzkoa)

Humanistika ikasketak bete zituen Baliarraingo (Gipuzkoa) oharkaritzan eta Filosofia eta Teologia ikasketak Gasteizko Kontzilio Apezgaitegian.

1913ko udan *Völkerpsychologie* obraren egile zen Wundt Irakaslearen ikasteldietara joan zen Leipzig-eko Unibertsitatera. Irakasle harengandik jaso zituen orientabideek ondorengo ikerketa antropologiko eta etnografikoen norabideak baldintzatu zuten.

1914ko Abenduaren apeztua izanik, Teologia Lizentziatura lortzen du 1915ean Burgosko Unibertsitate Eklesiastikoan.

1916ean “Ataun Erdi Aroan” izeneko bere lehen saioa kaleratu zuen Donostian argitaratzen zen *Euskalerriaren alde* aldizkarian.

Gasteizko Apezgaiteko Iralasle delarik, 1917-18 ikasturteari hasera emango dion hitzaldia ematen du “Euskal Prehistoria”ri buruz. Hitzaldi honen argitarapenaren ondorioz Henri Breuil frantziar Prehistorialari goia ezagutu zuen, honek, Obermaier germaniar prehistorialariarekin harremanetan jarri zuelarik.

1917. urtean bertan harremanetan jarri zen lehenengoz bere maixu izango zen Aranzadi Doktorearekin, garai hartan Bartzelonako Unibertsitateko katedradun zena. Eguren Doktorearekin batera, Oviedoko katedraduna, eta 1936 arte 20 urtez elkarrekin lan egingo zuten arkeologo talde osatu zuten.

1922an eta Aranzadi irakasleak lagundurik, Europan zehar itzuli bat egiten du Paris, Colonia, Maguncia, Munich, Leipzig, Berlin, Holanda, Akisgran eta Tilburg-go Museo eta Erakindeak bisitatuz.

Azken hiri holandar honetan "La religion des anciens Basques" txostena aurkezten du irailean Erlijiozko Etnologiaren Nazioarteko Biltzarrean.

1926an Agirre Apezgaitegiko Erretore eta Kontzilio Apezgaitegiko Erretoreorde izendatzen dute. Bere lagun eta irakaslekide Manuel de Lekuona jaunaren iritziz, Barandiaran "erabateko berrikuntza baten bultzatzailea izan zen, ikasketen zentzu zientifikoan Gasteizko Apezgaitegian eta modu zabalago batetan Eusko Ikaskuntzan", natur eta antropologiko zientziei bultzada emanez.

1929an, bigarren ikasketa bidai bat burutzen du, Aranzadi Doktorearekin hau ere, Bartzelona, Lyon, Ginebra, Berna, Zurich, Viena, Innsbruck, Luzerna, Interlaken eta Bordeleko elkarte eta institutu antropologikoetara joanaz.

1917-1936 bitarteko denboraldian era Aranzadi eta Eguren Doktoreekin, indusi arkeologikoen egitamu sistematikoari ekiten dio Euskal Herriko lurralde guztian zehar: *Aralar* mendikateko trikuharriak (1917), *Aifzgorri* mendikatekoak (1918), *Ataun-Burunda* (1919), *Altzania* (1920), *Encia* mendikate eta *Elosua-Soraluzekoa* (1921), *Belabieta* eta *Urbasakoa* eta Arabako Haizpe Artifizialak (1922). Berriro *Aralar* (1923), *Santimamiñe* haitzuloa (1924, 1925 eta 1931), Lumantxa 1925ean. *Ermittiako* eta Gipuzkoako beste haitzuloak 1924 eta 1927an, *Bolinkoba* (1933), *Urtiaga-Ifziar* (1936).

1931an *Gizaki Primitiboaren Historia laburra* obra argitaratzen du Eusko Folklore Urtekariaren barnean argitaratzen zihoan saioen artean.

1934an itzulpen bikoitza (euskaraz eta gaztelaniaz) argitaratzen du, bere sintesi obra: *Euskal Herriko Gizaki Primitiboa.*

1935ean Londoneko bileran Antropologia eta Etnografia Nazioarteko Biltzarreko kide izendatuko dute.

1939an Copenhageko Antropología Nazioarteko Biltzarrean hartzen du parte "Euskaldunen aintzinako Erlijioei buruz" txostenarekin.

Gerra Zibila dela eta 1936-1953 bitartean Behe Pirineotako Departamentuan bizi da eta 1924. urtetik aurrera Sara Herrian.

1946an *Institut Basque de Recherches* sortzen du *IKUSKA* izendatua eta ikerketa berriak biltzen dituen izen bereko boletina argitaratzen hasten da.

1947an Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Elkarteko Zuzendari izandatzen dute. Bertako EUSKO JAKINTZA argitalpenean euskarologia arloan garrantzitsuen diren europear ikaskorrak biltzen dituzte.

1946-1950 urte bitartean Nazioarteko biltzarre ugaritan hartuko du parte: London eta Oxford (1946), Paris, Artxeozibilizazio Biltzarrea (Uztaila 1947), Musée de l'Homme (Iraila 1947), Paris (1948), Bruselas (1948), Bruselas (1949).

1953.ean Euskal Herrira itzultzen da eta bere Erretore Jauna, Tovar irakaslearen eskakizunez, *Eusko Ikaskuntzen Gaurko Egoera* izeneko hitzaldia emango du Salamanca-ko Unibertsitatean.

1956an Eusko Folklorearen Urtekaria berrargitaratzen hasten da XV.aletik hasita, Aranzadi Zientzi Elkartearen babespean, eta era berean ikerketa arkeolojikoei ekiten die ikerketa talde gazteak sortuz. *Leizetxiki, Aitzbitarte, Kurtzia, Atxeta, Urtiaga, Axlor, Ekain* eta beste aztarnategitan araketak.

1965-1977 urte bitartean Nafarroako Unibertsitatean sorturiko *Euskal Etnologia* katedra zuzenduko du. ETNIKER egitamua ezartzen du, etnografi egitamu sistematikoa aurrera eramango duen ikertzaile ta laguntzaile taldeak sortuz eusko lurralde guztietan, Euskalerriko Atlas Etnografikoa lantzeko asmoz.

1972an Bilboko Euskal Goi Entziklopedia bere obra Bilduma kaleratzen hasten da, guztira 22 ale osatuz.

1973an ETNIKER-BIZKAIA talde sortzen du, honek Derioko Labayru Euskal Bibliotekan duelarik gizarte egoitza.

1976.ean On Manuel Lekuona, Irigaray eta Garate Doktoreak, On Manuel Irujo, eta On Agustin Zumalaberekin bat, —Eusko Ikaskuntzaren azken Batzarre Iraunkorreko kideak—, martxan jarriko du berriro Elkarte hau. Oñatiko Biltzarre Nagusian Eusko Ikaskuntzako Lehendakari izendatzen dute aho batez, urte bereko irailean.

1978an Apirilan Euskal Herriko Unibertsitateak Honoris Causa Doktoregoa onesten dio. Golardo bera onetsiko dio 1981ean Gasteizko Teologia Fakultateak.

1983an, Probintziako Seme Gogokoa izendatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

1986ko Urrian Deustoko Unibertsitateak Honoris Causa Doktoregoa onesten dio.

1987ko Urtarrilaren 28an, Madrilgo Unibertsitate Konplutenseko Paraninfoan eta klaustro guztiaren aurrean Honoris Causa Doktoregoa jasotzen du egitada solemne batetan.

1987ko Abenduan Gernikako Arbolaren Gurutzea onesten dio Eusko Jaurlaritzak.

1988ko Apirilaren 20an, Eusko Ikaskuntzak eta On Jose Migel Barandiaranek Barandiaran Fundazioa sortzen dute.

1990ean Bizkaiko Foru Aldundiak “Seme Bikaina” izendatzen du.

Urte berean honako hauek jasotzen ditu:

Sabino Arana Fundazioaren Urteko Saria.
Arte Ederretako Urrezko Domina Merezimenduari.
Nafarroako Gobernuaren Urrezko Domina.
Carlos III.aren Ordenako Gurutze Handia.
Donostiako Udaleko Urre eta Harbitxizko Intsignia.
Arabako Foru Aldundiaren Urrezko Domina.

1991ko Abenduaren 21ean, Santo Tomas Eguna, Ataunen hiltzen da goizeko bostetan.

## JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN AYERBE

Presidente de la Sociedad de Estudios Vascos

Académico de número de Euskaltzaindia

Presidente de Honor de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

Amigo de Honor de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País.

Miembro de Honor del Instituto Labayru.

Dr. Honoris Causa por las Facultades y Universidades del País Vasco, Teología de Vitoria, Deusto y Complutense de Madrid.

Director de los Grupos Etniker de Euskalerria

D. Jose Miguel de Barandiaran Ayerbe nació el 31 de Diciembre de 1889 en Ataun (Guipúzcoa).

Cursó estudios de Humanidades en la preceptoría de Baliarrain (Guipúzcoa) y de Filosofía y Teología en el Seminario Conciliar de Vitoria.

En el verano de 1913 acudió a los cursos que el Profesor Wundt, autor de la monumental obra *Völkerpsychologie,* impartió en la Universidad de Leigzig. Las orientaciones que recibió de dicho profesor marcaron el rumbo de su posteriores investigaciones antropológicas y etnográficas.

Ordenado Sacerdote en Diciembre de 1914, obtiene la Licenciatura en Teología en la Universidad Eclesiástica de Burgos en 1915.

En 1916 publicó en la revista *Euskalerriaren Alde,* editada en San Sebastián, su primer trabajo titulado “Ataun en la Edad Media”.

Profesor del Seminario de Vitoria, pronuncia el discurso inaugural del curso 1917-18 sobre “Prehistoria vasca”. A raíz de la publicación de este discurso entabló relación con el eminente preshistoriador francés Henri Breuil, quien le puso en contacto con el prehistoriador alemán Obermaier.

El mismo año 1917, había establecido su primer contacto con el que sería su maestro, el Dr. Aranzadi, a la sazón catedrático de la Universidad de Barcelona. Junto con el Dr. Eguren, catedrático de Oviedo, forman el equipo de arqueólogos que trabajaron conjuntadamente durante 20 años, hasta 1936.

En 1922 y en compañía del Profesor Aranzadi realiza una gira por Europa visitando Museos e Instituciones en París, Colonia, Maguncia, Munich, Leigzig, Berlín, Holanda, Akisgran, Tilburg.

En esta última ciudad holandesa presenta en Setiembre, la ponencia “La religion des anciens Basques” en el Congreso Internacional de Etnología religiosa.

En 1926 es nombrado Rector del Seminario de Aguirre y Vice-Rector del Seminario Conciliar. Según su amigo y co-profesor D. Manuel de Lekuona, Barandiarán “fue el gran propulsor de una reforma radical, en sentido científico de los estudios en el Seminario de Vitoria, y en un modo más amplio en los Estudios Vascos”, impulsando las ciencias naturales y antropológicas.

En 1929, emprende un segundo viaje de estudios de nuevo con el Dr. Aranzadi, recorriendo las sociedades e institutos antropológicos en Barcelona, Lyon, Ginebra, Berna, Zurich, Viena, Innsbruck, Luzerna, Interlaken y Burdeos.

En el período comprendido entre 1917-1936 en compañía de los doctores Aranzadi y Eguren lleva a cabo un plan sistemático de excavaciones arqueológicas sobre todo el territorio del País Vasco: Dólmenes de la sierra de *Aralar* (1917), de la sierra de *Aizgorri* (1918), de *Ataun-Burunda* (1919), de *Altzania* (1920), de la sierra de *Encia* y de *Elosua Placencia* (1921), de *Belabieta* y *Urbasa* y Grutas Artificiales de Alava (1922). De nuevo *Aralar* (1923),

Caverna de *Santimamiñe* (1924, 1925, 1931), *Lumentxa* en 1925. Cavernas de *Ermittia* y otras de Guipúzcoa (1924 y 1927), *Bolinkoba* (1933), *Urtiaga-Itziar* (1936).

En 1931 publica la obra *Breve historia del Hombre Primitivo* dentro de los trabajos que venía publicando en el Anuario de Eusko Folklore.

En 1934 publica en doble versión euskérica y castellana su obra de síntesis: *El Hombre Primitivo del País Vasco.*

En 1935 en la reunión de Londres es nombrado miembro del Consejo Permanente del Congreso Internacional de Antropología y Etnografía.

En 1939 participa en el Congreso Internacional de Antropología en Copenhague con la ponencia "Sobre las antiguas Religiones de los Vascos".

A raíz de la guerra civil desde 1936 a 1953 reside en el Departamento de los Bajos Pirineos y desde 1942 en el pueblo de Sara.

En 1946 crea el *Institut Basque de Recherches* denominado IKUSKA y comienza a editar un boletín del mismo nombre con las investigaciones realizadas.

En 1947 es nombrado Director de la Sociedad Internacional de Estudios Vascos que aglutina en su publicación EUSKO JAKINTZA a los estudiosos europeos más renombrados en la vascología.

Durante el período 1946 a 1950 participa intensamente en Congresos Internacionales: Londres y Oxford (1946), París, Congreso de Archeocivilización (Julio 1947), Musée de l'Homme (Setiembre 1947), París (1948), Bruselas (1948), Bruselas (1949).

En 1953 retorna al País Vasco y pronuncia en la Universidad de Salamanca, a requerimiento de su Rector el Prof. Tovar, su conferencia sobre *El Estado actual de los Estudios Vascos.*

En 1956 comienza a reeditar a partir del volumen XV el Anuario de Eusko Folklore, bajo el patrocinio de la Sociedad de Ciencias Aranzadi y reemprende sus investigaciones arqueológicas creando nuevos equipos de jóvenes investigadores. Exploraciones en los yacimientos de *Leizetxiki, Aitzbitarte, Kurtzia, Atxeta, Urtiaga, Axlor, Ekain,* entre otros.

Desde 1965 a 1977 regenta la Cátedra de *Etnología Vasca* creada en la Universidad de Navarra. Establece el plan ETNIKER formando en todas las regiones vascas equipos de investigadores y colaboradores que lleven adelante un plan sistemático de recogida etnográfica con objeto de elaborar el Atlas Etnográfico de Euskalerria.

En 1972 La Gran Enciclopedia Vasca de Bilbao comienza a editar sus Obras Completas que completarán un total de 22 volúmenes.

En 1973 crea el grupo de investigación etnográfica ETNIKER-BIZKAIA cuya arde social es Euskal Bíblioteka Labayru de Derio.

En 1976 en unión de D. Manuel Lekuona, Drs. Irigaray y Gárate, D. Manuel de Irujo y D. Agustín Zumalabe, componentes de la última Junta Permanente de la Sociedad de Estudios Vascos, ponen de nuevo en marcha esta Sociedad. En la Asamblea General de Oñate, de Setiembre del mismo año, es nombrado por unanimidad Presidente de Eusko Ikaskuntza.

En Abril de 1978 la Universidad del País Vasco le otorga el Doctorado Honoris Causa. Igual galardón le otorga en 1981 la Facultad de Teología de Vitoria.

En 1983, la Diputación Foral de Guipúzcoa le nombra Hijo Predilecto de la Provincia

En Octubre de 1986 la Universidad de Deusto le otorga el Doctorado Honoris Causa.

El 28 de Enero de 1987, en un solemne acto, celebrado en el Paraninfo de la Universidad Complutense de Madrid y en presencia de todo el claustro, recibe el Doctorado Honoris Causa.

En Diciembre de 1987 Eusko Jaurlaritza le otorga la Cruz del Arbol de Guernica

El 20 de Abril de 1988, Eusko Ikaskuntza y D. José Miguel de Barandiarán crean la Fundación Barandiarán.

En 1990 la Diputación Foral de Bizkaia le nombra "Seme Bikaina".

En el mismo año le conceden:

La Fundación Sabino Arana su Premio anual.
La Medalla de Oro al Mérito de las Bellas Artes.
La Medalla de Oro del Gobierno de Navarra.
La Gran Cruz de la Orden de Carlos III.
La Insignia de Oro y Brillantes del Ayuntamiento de Donostia.
La Medalla de Oro de la Diputación Foral de Alava.

El 21 de Diciembre de 1991, Festividad de Santo Tomás, fallece en Ataún a las 5 de la mañana.